

INFORMAZIO-GIDA

Paziente eta senitartekoei
harrera eta ongietorria

IRAKURRI INFORMAZIO HAU. ZURI LAGUNTZEKO GAUDE.

Galdakao
Usansolo

Ospitalea-Hospital



Osakidetza



OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

Aurkezpena

Lagundu iezaguzu zure iritzia emanda.
Zure iradokizunek eta iruzkinek
hobetzen laguntzen digute.

Lortutako agiriak:



Lehenik eta behin, ospitaleko egonaldia atsegina gerta dakizula opa dizugu.

Galdakao-Usansolo Ospitalea da Osakidetzaren Sarean Barruko Eskualdeari estaldura ematen dion akutuen ospitale orokor bakarra.

Gure biztanleriaren osasuna hobetzeko lan egiten dugu, zenbait balio -hala nola berrikuntza, profesionaltasuna, talde-lana, hurbiltasuna eta gure gizartearekiko konpromisoa- oinarri hartuta.

Gure helburua da zuk ahalik eta tratamendurik eta zainketarik onenak jasotzea, eta denbora eta energia ematen ditugu helburu hori lortzeko.

Sortu zenetik, ospitaleak ahalegin handia egin du gure arretaren kalitatea hobetzeko. Eta ISO 9001-2008 ziurtagiria lortzeko ospitale osoak egindako ahalegina kalitatearekiko eta lan onarekiko dugun konpromisoaren adibide da. Gure kudeaketa-sistemaren funtsa EFQM bikaintasun-eredua da, eta Erantzukizun Sozial Korporatiboan oinarritzen da, zeinak gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-esparruetan gizarteari balioa sortzea baitu helburu.

Azkenik, gogorarazi nahi dizut zuri laguntzeko gaudela, eta, beraz, edozein zalantza izanez gero, galdetu lasai zure zerbitzu-unitateko ospitaleko langileei.

Gida hau baliagarri izango zaizula espero dugu, zuretzako eta zure senitartekoentzako informazio interesgarria jaso baitugu han.

Gure artean egonaldi atsegina izango duzulakoan, har ezazu agur bero bat.

GALDAKAO-USANSOLO
OSPITALEKO ZUZENDARITZA

Informazio orokorra



Logo honen bidez, euskaraz hitz egiten duten ospitaleko langileak identifikatu ahal izango dituzu.



Telefono interesgarriak

Telefonogunea: 94 400 70 00

Kanpo-kontsultak: 94 400 70 99

**Gelak: 902 21 12 13 + gela-zk.
edo 94 457 12 80**

Harrera nagusiko zerbitzua

Kokalekua: Ospitaleko sarrera nagusia

Ordutegia: 8:00etatik 18:00etara.

Asteburuetan eta jaiegunetan izan ezik

Ospitaleratzearen edo ebakuntza kirurgikoaren egiaztatzea behar baduzu, eskatu zerbitzu horretan

Pazienteen eta erabiltzaileen arreta-zerbitzua (PEAZ) / Gizarte-laguntzako unitatea

Zerbitzu horrek erantzungo die egin nahi dituzun keza, erreklamazio, zoriontze eta iradoki-zunei, bai eta osasun-arretaren inguruan duzun edozein zalantzari ere. i ere.

Kokalekua: Ospitaleko sarrera nagusia.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara. Telefonoa: 94 400 71 04. Asteburuetan eta jaiegunetan izan ezik.

Ordutegi horretatik kanpo, unitate horren sarrean dagoen postontzian utz dezakezu zure idazkia.

Halaber, ospitalizazioko unitate guztietan iradokizun-postontzi bana dago paziente eta senitartekoentzat.

Gizarte-laguntzako unitatea

Unitate honetan, zure egonaldian sortzen zaizun edozein arazo sozial konpontzeko orientazioa eta laguntza emango dizu gizarte-langileak.

Erlijio-zerbitzuak

Bilboko elizbarrutiko osasun-pastoralak ematen duen zerbitzu bat da, laiko- eta apaiz-talde batek osatua, pazienteei eta senitartekoei laguntzen diena.

Kaperaren kokalekua: 3. solairuan, liburutegiaren ondoan.

Meza-ordutegia: astelehenetik larunbatera, 18:00etan
igande eta jaiegunetan, 11:00etan

Harremanetarako: joan zure solairuko osasun-langileengana, edo deitu zenbaki honetara: 688 809 297

Beste erlijioen batekoa bazara eta erlijio-zerbitzua nahi baduzu, hitz egin kapilauarekin, eta hark kudeatuko du zure eskaera.

PERTSONALEKO UNIFORMEAK



MEDIKUA



ERIZAINA



ERIZAINZAKO
LAGUNTZAILEA



TEKNIKARI
ESPEZIALISTA



ADMINISTKO.
LANGILEA



ZELARIA



GARBITZAILEAK



Ospitalizazioa

Ospitalizazioko unitatea

Ospitaleratzen zaituztenean, erizaintzako langileek ahoz eta idatziz azalduko dizute zein diren unitatearen funtzionamendua, ordutegi espezifikoak eta zure egonaldian artatuko zaituen asistentzia-taldeko arduradunak.

Oso garrantzitsua da zuk guri laguntzea; pazientearen ardura da etxean egiten duen tratamenduari buruzko informazio oso eta egiazkoa ematea.

- Esan iezaguzu botikaren bat hartzen ari zaren; botikaren izena ziur ez badakizu, ekarri botika eta medikuaren agindua, halakorik baldin baduzu.
- Botikaren bati alergia badiozu, esan zure unitateko/zerbitzuko erizaintzako langileei. Era berean, objektu edo materialen bati alergia badiozu (latexa, zilarra, artilea, xaboiak eta abar), esan unitateko/zerbitzuko langileei.
- Halaber, lehen izandako ospitaleratzeen txostenak edo zure gaixotasunagatik egindako proben emaitzarik baduzu, ekarri haiek ere.

Zure segurtasuna bermatzeko, identifikazio-eskumuturreko batean zure datu pertsonalak jarriko ditugu, eta eskumuturreko hori jarria izan behar duzu ospitalean zauden bitartean. Eskumuturrekoa galtzen edo hondatzen bazaizu, mesedez, esan erizaintzako langileei, beste bat jar diezazuten.

Pijama, bata, txapinak, hortzetako eskuila eta beharrezkotzat jotzen dituzun bestelako gaiak ekarri behar dituzu.

Baliozko objekturik baduzu, eman zure familiari; ospitaleak ez du bere gain hartzen objektu horiekiko ardura.

Ospitaleratuta zauden bitartean, dagokizun unitatean egon behar duzu, eta ez duzu inoiz utzi behar unitate hori langile arduradunen baimenik gabe.

Dokumentu edo ziurtagiriren bat behar baduzu, eskatu artatzen zaituen zerbitzu medikoko idazkaritzan.

Informazio medikoa

Medikuak egunero egiten du bisita. Zure asistentziaren ardura duen medikuak gaixotasunaren bilakaeraren berri emango dizu aldian-aldian. Lasai galdetu jakin duzun guztia.

Zure konfidentzialtasun-eskubidea bermatzeko, medikuak zure senitartekorik hurbilekoenei edo zuk izendatutako pertsoneri soilik emango die informazioa, unitatean horretarako prestatutako lekuan eta dagokion ordutegian.

Ebakuntza kirurgiko bat egin behar badizute, zure senitartekoek 2. solairuko operazio-gelako itxarongelan itxaron dezakete, eta kirurgialaria ebakuntzari buruzko informazioa ematera joango zaie ebakuntza bukatu ostean.



Erizaintzako zainketak

Erizaintzako langileek eguneko 24 orduetan artatuko zaituzte. Laneko txanda bakoitzean, erizain batek du zure zainketen gaineko zuzeneko ardura.

Zerbait behar baduzu, sakatu zure ohe-buruan dagoen txirrina. Mesedez, ez erabili txirrina beharrik izan ezean. Behar ez duzunean deitzen baduzu, litekeena da beste paziente baten zainketak oztopatzea.

Ospitalizazioko unitate guztietan erizaintzako gainbegirale bat dago, eta harengana jo dezakezu beharrezko iruditzen zaizun orotan.

Elikadura

Ospitaleak aukera ematen dizu dietista baten gomendioekin zure menua hautatzeko, betiere zure medikuak agindutako dietak horretarako aukera ematen badu. Elikagairen bati alergia badiozu, esan erizaintzako langileei. Zure elikadurari buruz informazioa eskatu edo zalantza-zen bat argitu nahi baduzu, erizaintzako langileek dietetika-taldearekin harremanetan jarriko zaituzte. Ez hartu beste elikagairik, zure osasunerako kaltegarria izan daiteke eta.

Otorduen ordutegiak (gutxi gorabehera)	Gosariak:	9:00-10:00
	Bazkaria:	13:00-14:00
	Merienda:	16:00-17:00
	Afaria:	20:00-21:00
	Gaueko osagarria:	24:00

Ospitaleko alta

Artatzen zaituen medikuak erabakiko du noiz eman behar dizun alta. Zuk senitartekoei deitzeko eta prestatzeko egin beharreko izapideak egiteko behar beste denboraz jakinaraziko dizu medikuak alta emango dizula.

“Alta-txostena” emango dizute, eta han izango dituzu etxean egin beharreko tratamenduari eta zainketei buruzko jarraibideak.

Osasun-arreta behar duen beste paziente bat artatu ahal izateko, beharrezkoa da ohea libre uztea 13:00etarako, gela garbitzeko eta prestatzeko. Alta geroago ematen badizute, mesedez, utzi gela libre ahal bezain laster.

Ospitalizazioa

Bisitak

Sarrera nagusiko zelarien postuan barra-kodea duen txartel bat ematen zaio bisita egin nahi duen pertsona orori. Gorde ezazu ongi, pazientea ingresatuta dagoen bitartean aktibatuta egoten baita txartel hori.

Pertsona bat 24 orduz pazientearekin egoteko baimena ematen da.

Gainera, bisita-orduetan paziente bakoitzeko beste pertsona bat sartzeko baimena ere ematen da. Gela bakoitzean paziente bakoitzeko bi pertsona soilik onartzen dira.

Ordutegia: Astelehenetik larunbatera, 15:00etatik 21:00etara
Ilgande eta jaiegunetan, 12:00etatik 21:00etara

Ospitaleak doako zuzeneko telefono bat jartzen dizu eskura, sarrera nagusian, beste bisitei esan ahal izan diezaiezun han zaudela. Horretarako, telefonoa hartu behar duzu, eta hitz egin nahi duzun gelaren zenbakia markatu.

Garrantzitsua da irtetean bisiten kontroleko barra-kodeen irakurgailutik pasatzea zure txartela; hala, erregistratuta geratuko da zure bisita bukatu dela, eta beste bisita batek sartzeko aukera izango du zure senitarteko edo lagunarengana.

Gaueko txandan, 23:00etatik 6:45era, laguntzaileek larrialdi-zerbitzuko atetik sartu eta irten beharko dute.

Zainketa intentsiboko eta Bizkorketako Unitateek, BAZUK, Iktusaren Unitateak eta Psikiatriako Unitateak berariazko bisita-ordutegia dute, unitate horietan dauden pazienten ezaugarriak direla eta. Ospitaleratzean emango zaizu ordutegi hori.

Mesedez, lagundu iezaguzu pazienteen erosotasuna eta lasaitasuna zaintzen:

- Errespeta itzazu bisita-txandak.
- Hitz egin ahots apalez, itxi gelako atea, utzi lekua korridoreetan, eta jaso atsedenerako besaulkia 7:00etatik aurrera.
- Burkoak, oheko arropa eta abar ospitaleratuta dagoen pazienteak soilik erabili behar ditu, eta ez zaie halakorik uzten senitartekoei eta bisitei.
- Medikuen bisita iristen denean edo pazienteak erizaintzako zainketak jaso behar dituztenean, mesedez, irten gelatik.
- Tresna medikoak dituzten pazienteak dauden eremuetan, itzali telefono mugikorra.
- Bisitentzako igogailuak bakarrik erabili.
- Larrialdiren bat gertatuz gero, jarri harremanetan ospitaleko langileekin, eta bete haiek emandako jarraibideak.

Gomendioak

Gogoan izan indarrean dagoen lege-araudiaren arabera erretzea debekatuta dagoela ospitale-eremu osoan.

Ospitaleak ingurumenarekiko konpromiso sendoa du, eta zenbait ingurumen-ziurtagiri ditu. Ospitalean zauden bitartean zure eskura jartzen diren baliabideak -argia eta ura- arduraz erabiltzea eta ospitaleko solairu edo unitate bakoitzean dauden birziklatze-puntuak erabiltzea gomendatzen dizugu.

Lagundu iezaguzu ingurumena zaintzen.



Beste informazio interesgarri batzuk

Kafetegia

Beheko solairuan dago, eta ospitaleko sarrera nagusitik du sarbidea. 7:00etatik 22:00etara zabalik dago, astelehenetik igandera.

Bazkariak (13:00etatik 16:00etara) eta afariak (20:45etik 21:45era) ematen ditu asteko egun guztietan.

Kafe-, freskagarri- eta sandwich-makinak daude Larrialdietako itzarongelan, operazio-gelen eremuan eta 0., 3., 4., 5., 6., 7., 8. eta 9. solairuetan.

Liburu- eta opari-denda

Ospitaleko sarrera nagusiaren ondoan dago. Orduategia: astelehenetik larunbatera, 7:30etik 20:00etara. Igande eta jaiegunetan, 09:00etatik 20:00etara.

Kutxazain automatikoa

Ospitaleko sarrera nagusian dago. 6:45etik 23:00etara erabil daiteke.

Garraioa eta aparkalekua

Bizkaibus: zenbait udalerrri eta ospitalea lotzen dituen autobus-linea.
Informazio gehiago: www.bizkaia.net

Eusko Trenbideak: ospitalea eta Usansoloko tren-geltokia lotzen dituen mikrobus bat dago.
Informazio gehiago: www.euskotren.net

Taxiak: taxi-geltoki bat dago kanpo-kontsultetako sarreraren ondoan.
Telefonoa: 94 456 58 27

Ospitalera garraio publikoan etorri ezin bazara, arren, erabili prestatutako aparkalekuak, eta ez oztopatu ospitalerako sarrera-irteerak eta gainerako bideak. Aparkatu zure ibilgailua behar bezala, larrialdi-egoeretan ez diezaion inori kalterik eragin.



Pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

Bada Osakidetzaiko pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen gutun bat. Ospitalazazioko unitatean eskuratu dezakezu gutun hori. Nahi baduzu, eska ezazu.